



## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

---

### OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

---

**Organoa:** Udalbatza

**Deialdia:** Lehenengoa

**Bilera mota:** Arrunta

**Eguna:** 2022.11.21

**Ordua:** 18:00

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia

**Bertaratuak:**

- ALKATEA: Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.

**Bertaratu ez direnak:**

- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.

**Idazkaria:** Nagore Madariaga Iriarte

**AZTERGAIK:**

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala.
3. Uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. Tituluan jasotako erregulazioari, Foru Lege horren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoen egonkortze prozesuak gauzatzeko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz, partzialki atxikitzeko onespena.
4. 2023rako zerga, tasa eta prezio publikoen onespena.
5. Arantzako naturzaleen eskaerari erantzuna.
6. Juan Angel Lucamblo Gonzalezeri 6. poligonoko 175. lurzatiko eraikinaren obra amaierako dokumentazioa aurkezteko errekerimendua.
7. 9/2022 aurrekontu aldaketa.
8. ERDIZ herri galdeketa inguruko adierazpen instituzionala.
9. Alkate ebazpenak.
10. Galderak eta eskaerak.

## **1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA**

2022/10/25eko akta aho batez onartu da.

## **2. AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

Azaroaren 25ero bezala, elkarretaratzeen, manifestazioen eta adierazpenen bidez berriz ere gogora ekarriko ditugu emakumeen aurkako indarkeria betikotzen duten arrazoiak eta mekanismoak.

Hala ere, zenbait diskurtsotan berriro zalantzan jartzen da indarkeria hori, honako hau esanez: "indarkeriak ez du generorik". Horren aurrean, azaroaren 25ean, berriz ere azpimarratu nahi dugu indarkeriak baduela generorik eta, gainera, gizartean egiturazkoa den eta errotuta dagoen indarkeria dela. Horrek azaltzen du zergatik ematen den testuinguru kultural guztietan eta maila guztietan. Izan ere, jatorria ulertuta soilik eragin dezakegu hura ezabatzen lagunduko duten egitura-aldaketa sakonak sustatzen. Indarkeria horren egiturazko erroak eta izaera kulturala ukatzeak ez digu aurrera egiten uzten eta ezkututzen du femeninoa denari balioa kentzen dion eta emakumeak mendekotasun-egoeran jartzen dituen gizarte antolaketa bat dagoela. Gizonek eragin eta emakumeek jasaten duten indarkeria da. Horregatik, aurtan gizonak premiatzen ditugu gogoeta egin dezaten emakumeen giza-eskubideen kontra doan sistema honetan duten boterearen eta parte hartzearen inguruan.

Azken urteotan gizon askok egin dute bat berdintasun aldarrikapenekin, eta maskulinitate hegemoniko tradizionalak ezarritako genero-aginduak berrikusi dituzte, gizarte berdinzaleago baten alde egiteko xedez. Hala ere, aurrera egin behar dugu, are gehiago, eta gizon gehiago inplikatu behar dira modu aktiboan, normalizatutako portaerak (norberarenak zein besteenak) eta kultura matxista betikotzen duten sinesmenak identifikatuz eta aldatuz, justifikaziorik gabe eta beste alde batera begiratu gabe.

Emakumeen aurkako indarkeria EGON BADA eta badira erantzuleak, indarkeriaren oinarria diren desberdinkeriak iraunarazi eta birsortzea eragiten duen engranajea elikatzen dutenak.

EGON BADA eta badira erantzuleak, emakumeak gutxiagotzen dituen eta aldatzeko prest ez dagoen gizarte androzentriko eta patriarkal batean bizi garelako.

EGON BADA eta badira erantzuleak, indarkeria eragiten, onartzen eta legitimatzen duten gizonak daudelako, beste alde batera begiratzuz eta beraiek bezalakoen indarkeriazko jarrera matxistak justifikatuz.

EGON BADA eta badira erantzuleak, genero-ikuspegia txertatzea bermatuko duen prestakuntza falta delako, mundua ikusteko modua eraldatzeko, betaurreko moreak jantzita, gizarte-antolaketa esparru guztietan: judizialean, heziketan, osasunean eta ekonomikoan, besteak beste.

EGON BADA eta badira erantzuleak, komunikabideek erantzukizuna emakumeengan kokatzen duten mezuak zabaltzen dituztelako, arrisku sexualaren gaineko diskurtsoarekin gertatzen den bezala, zeinak emakumeak erasoan errudun eta beren segurtasunaren arduradun egiten baititu.

Horregatik, modu kolektiboan, toki-entitateek honako hau ADIERAZTEN DUGU:

GURE GAITZESPENA, emakumeek edozein esparru eta testuingurutan pairatzen dituzten askotariko diskriminazioek eragindako indarkeria matxista mota orori.

GURE KONPROMISOA, Administrazio Publiko garen aldetik, modu aktiboan lanean jarraitzeko desparekotasunen aurka, emakume zein neskatoen aurkako indarkeria-egoeren sorburu baitira, eta horrekin batera gonbit egitea hala gobernuari eta erakunde publikoei nola nazioarteko entitateei eta gizarte zibilari, gogoeta egin eta konpromisoak har ditzaten.

GURE ELKARTASUNA, eraso edo hil dituzten emakume eta neskatoei, indarkeria matxistari aurre egin behar dioten emakumeei eta haien seme-alabei.

GIZON GUZTIAK PREMIATZEN DITUGU, adin orotakoak, konpromisoak eta jarrera aktiboak har ditzaten, emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurrean.

HERRITAR GUZTIAK GONBIDATU NAHI DITUGU jarrai dezaten emakumeen kontrako indarkeria gaitzesten eta hura deuseztatzeko konpromisoa adierazten, baita patriarkatuaren kontrol mota guztiak eta emakumei askatasuna eta autonomia erabiltzea eragozten dieten muga eta baldintza guztiak salatzen ere, eta, hartara, azaroaren 25ean antolatzen diren jarduera guztietan parte har dezaten.

### **3. UZTAILAREN 1EKO 19/2022 FORU LEGEAREN II. TITULUAN JASOTAKO ERREGULAZIOARI, FORU LEGE HORREN BIDEZ NEURRIAK HARTZEN BAITIRA NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EGONKORTZE PROZESUAK GAUZATZEKO ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAREN ONDORIOZ, PARTZIALKI ATXIKITZEKO ONESPENA.**

Idazkariak adierazi du 20/2021 Legearen ondorioz, Arantzako Udalaren kasuan, garbitzailearen lanpostuak merezimendu-lehiaketa bidez egonkortu beharra dela. Hori dela eta, merezimendu-lehiaketa bidezko deialdia prestatu beharra da. Nafarroako Aldizkari Ofizialetik jakinarazi dutenez deialdiak abenduaren 7a baino lehen bidali beharrak dira abenduaren 31 baino lehen argitaratu ahal izan daitezen.

Era berean, 19/2022 Foru Legeak toki entitateei Nafarroako Foru Erkidegoko deialdien oinarriari osoki edo partzialki atxikitzea ahalbidetzen du. Horrela, bai toki entitate bai NAO lan karga arinduko litzateke.

Horri dagokionez, idazkariak garbitzailearen lanpostua merezimendu-lehiaketa bidez egonkortzeko deialdiaren hasierako bertsioaren oinarriak prestatu ditu baina, horiek ikusirik, partzialki atxikitu beharko litzateke. Izan ere, 3.1.f), 4., 6.1., 7. eta 9.1.b) oinarriak ez dira berdinak izanen.

Partzialki atxikitzearen akordioa udalaren osoko bilkurak onartu beharra duela azaldu du idazkariak.

Horrela bada, osoko bilkurak, informazioa adituta, KIDEEN LEGEZKO ZENBAKIAREN GEHIENGO OSOAREN ALDEKO BOTOAREKIN, ERABAKI DU:

1.- Partzialki atxikitzea, 3.1.f), 4., 6.1., 7. eta 9.1.b puntuek salbuetsita, uztailearen 1eko 19/2022 Foru Legearen Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondoriozko egonkortze-prozesuak gauzatzeko neurriei buruzkoaren, II. tituluan jasotako erregulazioari.

#### **4. 2023RAKO ZERGA, TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ONESPENA.**

Idazkariak 2022ko ordenantza fiskaletako tasen, prezio publikoen eta karga-tasen egungo egoera azaldu du. Horri dagokionez, adierazi du aurreko urtean lurraldeko kontribuzio-zergaren karga-tasa esponontzialki handitzea erabaki zela, horrela 2023an Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 139. artikuluan xedatutako % 0,25eko minimoan finkatu ahal izateko.

Era berean, aipatu du tasak eta prezio publikoak igotzea edo ez beranduago onartu daitekeen arren, karga-tasak 2023ko ekitaldia hasi baino lehen onartu beharko liratekeela, nahitaezko zergak direlako eta zerga horietako aunitz urteko ordainarazpenekoak direlako, hori guztia Nafarroako Ogasunei buruzko Foru Legearen 13.5 artikulua erabiltzeko erabakia. Erabaki hori onartu da.

Zentzu horretan, udalak azpimarratu du egungo egoera ikusirik, hau da, bizilagun aunitzen egunerokotasuneko gastuak nabarmen goiti egin duela, ez duela zilegi ikusten tasa eta prezio publikoak igotzea, momentuz ez behintzat.

Horrela bada, osoko bilkurak, informazioa adituta, KIDEEN LEGEZKO ZENBAKIAREN GEHIENGO OSOAREN ALDEKO BOTOAREKIN, ERABAKI DU:

1.- 2023ko ekitaldirako honako karga-tasa hauek onartzea:

- Lurralde-ekarpena: % 0,25.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: 1,30.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak ezarritakoa.
- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga: % 4.
- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga:
  - o Zerga-oinarria: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 175. artikuluan ezarritako gehienezko koefizienteak.
  - o Karga-tipoa: % 8.

2.- Gainerako tasa eta prezio publikoak honako ekitaldian bezala mantentzea.

3.- Erabaki hau 2023ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du hura indargabetzea edo aldatzea erabaki arte.

4.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Arantzako Udaleko iragarki taulan argitaratzea.

## **5. ARANTZAKO NATURZALEEN ESKAERARI ERANTZUNA.**

Alkateak adierazi du Arantzako naturzaleen proposamena Arantzako Udalak modu informalean aintzat hartu zuela eta horrela adierazi ziola Usua Ehiztarien Elkarteari, Ehiza Antolatzeko Plan berria eratzerakoan kontutan hartuko zutelakoan. Illurdiko inguruaren handitzea Aranibar-Arruzpi parajearekin aldatu zitekeela ere proposatu zuen. Horrela, Illurdiko eremua naturzaleek egindako eskaeraren arabera egokitu zitekeen eta Aranibar-Arruzpi aldeari eremu babestu izaera kenduko litzaioke, baserri eremu horietan basurdeen jardunak sortzen dituzten kalteei aurre egiteko nolabait. Izan ere, udalaren ustez neurri hauekin denen nahiak asetzetik hurbil geldituko litzateke. Udalak denbora guztian aterabide negoziatu bat bilatu du herritarren arteko haserreak ekidin nahian. Gaur, Ehiza Antolatzeko plan berria ikusita jakin dute udalaren ahaleginak ez direla kontuan hartu. Arantzako Udalak eskumena izanen luke aldebakartasunez eremu hori (naturzaleek eskatutakoarekin bat eginez) erreserba bihurtzeko, gaur gaurkoz ordea, udal honi zalantza aunitz sortzen dizkio ekintza hauek izanen luketen eragina. Gai hau jorratu eta hausnartzeko beharra dagoela iruditzen zaio pausoak eman aitzinetik.

Zentzu horretan, udalkideek gaiaren inguruan eztabaidatu dute. Imanol Lukanbio zinegotziaren hitzetan, ehiza barrutiaren erabilera errespetatzen da orokorrean, baina badira hobetu daitezkeen zenbait puntu; hala ere, ez du argi ikusten zer nolako onura ekarriko liezaizkioke ingurumenari erreserbaren eremua handitzeak. Aldiz, Beñat Mitxelena zinegotziaren iritziz, herritarrekin elkarlan bat egin beharko litzateke gaia ongi jorrazteko eta horrela, irtenbide bat lortu ahal izateko.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KOPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ ERABAKI DU:

1.- Osoko bilkura honetan adierazitako Arantzako naturzaleei jakinaraztea, euren ezaguera eta ondorioetarako.

## **6. JUAN ANGEL LUCAMBIO GONZALEZERI 6. POLIGONOKO 175. LURZATIKO ERAIKINAREN OBRA AMAIERAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA.**

Idazkariak 2022ko azaroaren 15ean egindako txosten juridikoaren nondik norakoak azaldu ditu. Horri dagokionez, azpimarratu du ezin daitekeela luzapenik eman Juan Angel Lucambio Gonzalezeri 6. poligonoko 175. lurzatian duen etxebizitza egitez bukatzeko. 2011ko urriaren 31n emandako obra baimenaren iraupena nabarmenki gainditu da eta, gainera, egin diren hainbat errekerimendutan dokumentazio aurkezteko edo obra exekutatzeko jarritako epeak ez dira bete. Horregatik, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 197., 215. eta 218. artikuluetan xedaturikoari jarraiki, obra baimenaren iraungitze espedienteari eta dagokion santzio espedienteari hasiera eman beharra zaiola aipatu du idazkariak.

Osoko bilkurak gaiaren inguruan eztabaidatu du. 2020ko uztailaren 1eko udal arkitektoaren txostenean xedaturiko eskuhartzeak egitea bakarrik falta direla ikusirik eta 2022ko azaroaren

hasieran sustatzailearekin izandako bileraren ondotik egin beharreko lanak egitez bukatzeko duen interesa ikusirik, adierazitako obrarekin bukatzeko azken aukera bat eman nahiko liokete.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

1.- Juan Angel Lucambio Gonzalezeri 3 HILABETEKO epea ematea, akordio hau jakinarazten den egunetik kontatzen hasita, 2020ko uztailaren 1eko udal arkitektoaren txostenean xedaturiko eskuhartzeak egin eta dagokion obra amaierako dokumentazioa Arantzako Udal Erregistroan aurkezteko.

2.- Sustatzaileari jakinaraztea, emandako epean aipaturiko eskuhartzeak egin ezean, dagokion espedientei hasiera emanen zaiela hirigintzaren legezatasuna babeste aldera.

3.- Akordio hau sustatzaileari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

## 7. 9/2022 AURREKONTU ALDAKETAK.

Idazkariak 9/2022 aurrekontu aldaketa azaldu du. Horretarako aurrekontuaren aldaketa egin ahal izateko 2022ko azaroaren 15ean kontuhartzailearen txostenean xedaturikoa azaldu du. Horrela bada:

### 9/2022 ALDAKETA: KREDITU BEREZIAK ETA KREDITU GEHIKUNTZAK (DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOTIK)

Donato Larretxea aizkolariari omenaldia egin nahi zaio eta honako ekitaldi hau egiteak sortuko dezakeen aparteko gastuaren zenbatekoa 1.000,00 eta 2.000,00 euroren bueltan ibiliko dela jakinik, 1.3.2. poltsan kreditu nahikoa ez dagoenez, gastuen atalean partida berria ireki eta kreditu berezi eta gehigarri bidezko diruzaintzako gerakin likidotik aurrekontu aldaketa egitea proposatu du idazkari-kontuhartzaileak.

GASTUA:		
1 3410 2260904	DONATO LARRETXEAK EKITALDIA	2.000,00 €
FINANTZAKETA:		
1 8700000	DIRUZAINZAKO GERAKINA	2.000,00 €

Hasteko, 3.3. oinarrian xedaturikoari jarraiki, aurrekontu aplikazio guztiak berariaz irekita daudela adierazten denez, gastuen atalean 1 3410 2260904 "DONATO LARRETXEAK EKITALDIA" partida ireki beharko da.

Ondoren, kreditu berezi eta gehigarri bidezko aurrekontu aldaketa denez, 10. oinarrian xedaturikoari jarraiki, osoko bilkurako akordio bidez onetsiko beharko da aldaketa, 9.4. oinarrian aurreikusitako tramite berei jarraituz.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

- 1.- 9/2022 aurrekontu aldaketari onepena ematea.
- 2.- Udaleko iragarki oholean akordioa argitaratzea 15 egun NATURALETAN bizilagun eta interesdunek hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.
- 3.- Jendaurreko epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, behin betikoa egingen da aurrekontu aldaketa

## **8. ERDIZ HERRI GALDEKETAREN INGURUKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Arantzako Udalak salatu nahi du nola XXI. mendean "Estatu Demokratiko" batean udal bateri galarazten ari zaion herri-lurretan garatu behar den aktibitate baten inguruan erabakitzekeo eskubidea edo herritarren iritzia jakiteko galdeketa bat egitea.

Horregatik, modu kolektiboan, Arantzako Udaletik honako hau ADIERAZTEN DUGU:

- 1.- Baztango Udalari gure babesa eman nahi diogu Estatuko zein Nafarroako Gobernuan dauden ordezkari, lehen adierazitako guztia kontutan hartuz, gure desadostasuna argi utziz.

## **9. ALKATEAREN EBAZPENAK.**

134/2022 eta 145/2022 arteko ebazpenak berretsi egin dira.

## **10. ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egiten.

Halaber, hurrengo osoko bilkura abenduaren bigarren astetik aitzin izanen dela jakinda eta akordio batzuk hartzeko dagoen premia ikusirik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 81.2. artikuluan xedaturikoaren arabera, honako puntu hau osoko bilkuran honetan eztabaidatu daitekeela dio idazkariak.

## **11. MEDIKUAREN PLAZA HUTSIK EGOTEAREN KEZKA HELARAZPENA.**


Gaur egun lgantzi eta Arantzako medikuaren lanpostua hutsik dago aipaturiko udalerrietan. Horrela bada, ez dago bermatua herrietan bertan medikuaren zerbitzua izanen denik. Ez jakin egoera honen aitzinean, Arantzako Udalak beharrezkotzat jotzen du Nafarroako Gobernu Osasun Departamentutik berehalako eskuhartze bat egitea egoera honi irtenbide bat emateko. Izan ere, ez bakarrik udalaren iritziz, herritarren iritziz ere premiazko egoera bat da.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

1.- Arantzako Udalaren kexua Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari helaraztea, Igantzi eta Arantzako mediku ezaren arazoari berehalako konponbide bat eman dezaten, lanpostua behin betiko beteta gera dadin.

Bertze aztergairik izan gabe, 20:00 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.


**ALKATEA,**



Dabid Iturria Almandoz



**IDAZKARIA,**



Nagore Madariaga Iriarte